

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroak hasieran gure aplikazioa deskarga dezaten lortzeko marketing kanpaina bat eramango dugu aurrera. Marketing kanpaina honetan gazteen artean ezaguna den jendearekin harremanetan jarriko gara eta beraien bidez gazteen artean ezagutzera emango gara.

Behin gazteen artean ezagutzera eman garela eta ahiek gure aplikazioa deskargatu dutela beraien arreta edukitzen jarraitzeko atal berriak gehitzen joango gara. Aplikazioak hasieran atal jakin batzuk bakarrik edukiko ditu eta denbora pasatzen doala atal berriak gehitzen joango gara eta horrela bezeroen beharrak asetzen.

Bestalde beraiekin harremanetan egoteko telefono eta gmail bat edukiko ditugu eskuragarri. Honela beraiek edozein momentutan edozer gauza behar baldin badute gurekin kontaktuan jarri daitezke eta guk haiei laguntza eskaini. Telefono eta gmail honen bitartez gainera gure aplikazioa hobetzeko edozein ideia baldin badute ere bertatik esan ahalko digute.

Azkenik beraiek gure aplikazioaren parte garrantzitsu bat direnez, bertan parte hartu ahal izango dute. Aplikazioan bertan beraiek haien apunteak igo ahal izango dituzte eta horrela beste ikasle batzuei lagundu; bestalde gainera beste ikasle batzuekin hitz egiteko chat bat ere egongo da eta horrela dituzten dudak beraien artean argitu ahal izango dituzte.